



Txosten ekonomikoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Tabako Laboreen gaineko Zerga Berezian aldaketak sartzen dituen Foru Dekretu Arauari buruzkoa

1. Sarrera

Txosten honetan aztertzen da zenbateko eragina izango duen Gipuzkoako Foru Ogasunaren zerga-bilketan Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Tabako Laboreen gaineko Zerga Berezian aldaketak sartzen dituen Foru Dekretu Arauak.

Helburua da kalkulatzeko zenbateraino aldatuko den zerga-bilketa gaur egun indarrean dagoen araudiaren ordezkari arau proiektu berrian jasotzen diren aldaketa nagusiak aplikatzen badira. Hortaz, txosten honen xedea ez da proiektuan sartzen diren neurriak termino absolututan ebaluatzea, neurri horiek hartu eta indarrean daudenekin alderatzea baizik.

2. Araudiaren aldaketak



Ekonomia Itunak dioenez, lurralde historikoek Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan estatuan bezalako araudi funtsezko eta formal bera aplikatuko dute.

Estatuan Aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legea onartzearen ondorioz, xedapen horrek onartutako aldaketako batzuk sartu behar dira Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudian.

Indarrean dagoen araudia eta proiektuan proposatutakoa alderatuz bien arteko diferentziarik esanguratsuenak identifikatu ditugu:

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren karga tasa, 2012ko irailaren 1etik aurrera:

Araubide orokorrean:

- Tasa orokorra %18tik %21era igoko da.
- Tasa murriztua %8tik %10era aldatuko da.
- Tasa murriztuenak %4 izaten jarraituko du.

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia:

- Nekazaritza eta baso jarduerak: %10etik %12ra.
- Abeltzaintza eta arrantzako jarduerak: %8tik %10,5era.

Baliokidetasun errekguaren araubide berezia:

- Tasa orokorra: %4tik %5,2ra.
- Tasa murriztua: %1etik %1,4ra.



Gainera, hainbat ondasun entrega eta zerbitzu prestazio **tasa murriztuan edo murriztuenean zergapetuta egotetik tasa orokorrean zergapetuta egotera aldatuko dira**, eta, beraz, %8tik %21era igoko dira.

2. Tabako Laboreen gaineko Zerga Bereziaren karga tasa, 2012ko irailaren 1etik aurrera:

- Tasa orokorra %55etik %53,1era jaitsiko da, zuzentarau batek baitio BEZaren igoeren ondorioz zigarreten tasa egokitu behar dela, zerga igoera ez dadin handiegia izan.
- Berariazko tasa 19 eurotik 19,1 eurora igoko da, 1.000 zigarreta bakoitzeko.
- Gutxieneko tasa 116,9 eurotik 119,10 eurora igoko da, 1.000 zigarreta bakoitzeko.

Proposatutako aldaketen ondorioz, tasak igoko dira; beraz, hasiera batean, zerga-bilketa igoko da, nahiz eta tasa igoeraren eta krisi ekonomikoaren ondorioz kontsumoa jaitsiko dela espero den .

3. Zerga-bilketako eragina

Proposatutako neurriek zerga-bilketan duten eragina kalkulatzekoan, kontuan izan behar dugu zerga honek ezaugarri berezi bat duela:

- Gipuzkoako Foru Ogasunak legezko kuota exijitzeaz gainera, zerga administrazio desberdinen artean (gainerako foru ogasunak eta Estatuko Ogasuna bertan direla) doikuntzak egiten dira benetan lortutako bilketan, zergapetutako produktuen amaierako kontsumoa



fabrikaziokoa ez den beste lurralde batean gertatzeak dakarren distortsioa zuzentze aldera.

Zerga honetan aitorpena aurkeztera behartuta dauden subjektu pasiboen aitorpenetatik abiatuta eta Estatuaren zerga-bilketako aurreikuspenetan oinarrituta, espero da BEZaren bilketa urtean 194 milioi euro inguru igotzea eta Tabako Laboreen gaineke Zerga Bereziarena 8 milioi euro inguru.

Alabaina, proposatutako aldaketak 2012ko irailaren 1ean jarriko direnez indarrean, zerga ekitaldi hau amaitu bitartean zerga-bilketak izango duen gehikuntza 44.030.000 euro da.

Kopuru horren barruan sartuta daude beste aldundiekin eta Estatuarekin egin behar diren doikuntzak.

4. Genero eragina.

4.1. Txostenaren oinarriak eta xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoan onartuta dagoen Gizon eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 6. artikuluan dio foru administrazioei dagokiela foru legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako printzipioaren arabera. Era berean, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Erakunde Antolaketari, Gobernuari eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan ezartzen du, foru arauen aurreproiektuak eta xedapen orokorren proiektuak



prestatzeko prozeduraren barruan, genero eraginari buruzko derrigorrezko txosten bat aurkeztea eranskin gisa.

4. 2. Genero ikuspuntutik kontuan hartzeko neurrien identifikazioa.

Pertsonei (gizonak edo emakumeak) eragingo dieten neurri batzuk identifikatu dira. Zehazki, eragin hauek izango dituzte:

BEZaren tasak eta Tabako Laboreen gaineko Zergaren tasak aldatzeak zuzenean gizon eta emakumeei eragiten die. Horregatik, iruditzen zaigu aldaketa hau aztertzea EGOKIA dela genero eraginari dagokionez.

BEZari dagokionez, kontsumoa kargatzen duenez, ez du progresibotasunez jokutzen, baizik eta kontsumitzaile guztiei berdin eragiten die, erosteko ahalmena edozein izanda ere. Egiaztatu denez, emakumeen errentaren batez besteko mailak gizonena baino nabarmen txikiagoa izaten jarraitzen du gaur egun. Horregatik, gure iritziz, BEZaren tasak igotzearen ondorioz, emakumeak kaltetuta aterako dira neurri handiago batean, zeren eta kasu askotan kontsumoaren ezinbesteko jaitziera gertatuko baita (errenta txikiagoetan) eta, kasurik onenean, aurrezpen txikiago bat izango baita errenta txikiago horietarako.

Hori horrela, ondorioztatu dezakegu neurri horien eragina NEGATIBOA izango dela genero ikuspuntutik, jadanik baliabide gutxiago dutenek bizi duten egoera zaila okerrago bihurtuko baitu, eta horien artean emakumeen portzentaje handiago bat baitago.



Donostia, 2012ko uztailaren 27a

AZTERLAN ATALEKO TEKNIKARIA

**O.I.
ERAKUNDEEKIKO KONPROMISOEN
ZERBITZUKO BURUA**